

# Covid-19ak TXINAn izandako eraginari buruzko txostena

**Basque  
Trade &  
Investment**

*2020ko ekainaren 10a*

+ SHANGHAIko bulegoa



**BasqueTrade  
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización  
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO  
**spri**  
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**  
BASQUE GOVERNMENT



## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>2. INPAKTU EKONOMIKOA.....</b>	<b>4</b>
2.1. MAKRO DATUAK .....	4
2.2. INPAKTUA SEKTORE INDUSTRIALETAN.....	5
2.3. INPAKTUA KANPO-MERKATARITZAN ETA ATZERRIKO INBERTSIOAN .....	7
2.4. INPAKTUA ZERBITZUETAN .....	10
2.5. INPAKTUA FINANTZA SEKTOREAN (MERKATUAK, BANKUEN SEKTOREA).....	11
<b>3. EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK .....</b>	<b>12</b>
3.1. DIRU-SARRERAK ETA GASTU FISKALAK.....	12
3.2. NEURRI FISKALAK .....	13
3.3. DIRULAGUNTZAK ETA MAILEGU PUBLIKOAK .....	13
3.4. LAN-INDARRA.....	14
<b>4. MURRIZKETAK.....</b>	<b>15</b>
4.1. ZERBITZU LOGISTIKOAK ETA BARNE-GARRAIOA .....	15
4.2. BIZTANLERIAREN MUGIKORTASUN-MURRIZKETAK .....	16
4.3. MUGETAKO EGOERA.....	17



## ➔ 1. SARRERA

Covid-19a agertu zenetik ia 6 hilabete igaro direnean, 7.200.000tik gora kasu baieztatu dira. Hildakoak 408.788 izan dira eta osatutakoak, berriz, 3.538.451.

Txinak, koronabirusaren pandemiaren epizentroak, lortu zuen infektatuen kurba leuntzea eta birusaren zabalkundea geldiaraztea, berehala jarri baitzituen martxan lehen mailako osasun-larrialdi hau eusteko neurriak 30 probintzia, eskualde autonomo eta udalerritan, eta neurri horiek 1.300 milioi pertsonarenganaino iritsi ziren.<sup>1</sup>

Hala ere, maiatzaren 11ko asteen iragarri zuen 7 kasu berri detektatu zirela Wuhan-en, eta bigarren alde baten beldurrez, biztanleria osoari (11 milioi pertsona) agindu zion proba egiteko.


Era berean, Txina ipar-mendebaldean oso kontrol zorrotzak egiten ari dira, Errusiarekiko mugan kasu berriak detektatu ostean. Gainera, iragan maiatzaren 10ean Jilin arrisku handiko probintzia deklaratu zuten, 15 infektatu berri erregistratu ondoren; berragerpen hori ekarri zuen emakumeak adierazi zuen ez zuela kontakturik izan beste infektatu batzuekin.

Hona hemen Txinako probintzien hiru grafiko, martxo, apiril eta maiatzeko alderaketa bat egiteko eta lehen mailako emergentziako eremuen bilakaera nolako izan den azaltzeko.



**11 MILIOI  
PERTSONAK TESTA  
EGIN BEHAR IZAN  
ZUTEN WUHANen,  
7 KASU BERRI  
AGERTU ZIRELAKO**


Osasun larrialdian dauden probintziak 2020ko martxoan



Osasun larrialdian dauden probintziak 2020ko apirilean



Osasun larrialdian dauden probintziak 2020ko maiatzean





## 2. INPAKTU EKONOMIKOA

### 2.1. MAKRO DATUAK

#### 2.1.1. Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaera

2019an, Txinaren hazkunde ekonomikoa % 6,1era iritsi zen, eta, aurreikuspenen arabera, joera horrek berdin jarraituko zuen 2020an eta 2021ean. Covid-19a agertu zenetik eta Nazioarteko Diru Funtzak egindako aurreikuspenen arabera, Txinako BPGaren hazkundera % 1,2ra murriztuko da 2020an, eta % 9,2ko hazkunde handia izango du 2021ean.<sup>1</sup> 2020ko lehen hiruhilekoan, Txinako BPGa 2.916,88 mila milioi dolar estatubatuarretakoa izan zen, hau da, 2019ko azken hiruhilekoan baino 1.009,99 mila milioi dolar estatubatuar gutxiago.<sup>2</sup> Horrek esan nahi du 2020ko lehen hiruhilekoan BPGa 2019ko laugarren hiruhilekoan baino % 9,8 gutxiago hazi dela (kontuan izan behar da iazko azken hiruhilekoan % 1,5eko hazkundera eman zela hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta), eta jaitsiera % 6,8koa izan dela iazko epe berarekin alderatuta. Hauxe da BPGak jasan duen lehen murrizketa 1992tik.<sup>3</sup>

BPGa	2019ko 4. hiruhilekoa	2020ko 1. hiruhilekoa
<b>HAZKUNDEA (%)</b>	1,5	-9,8
<b>BPGA (mila milioi)</b>	3.926,87 dolar estatubatuar	2.916,88 dolar estatubatuar

#### 2.1.2. Purchasing Managers' Index (PMI)

Manufaktura-industriak 2005az geroztik izandako beherakada handiena jasan du. Txinako Estatistika Bulego Nazionalaren (ONE) arabera, sektorearen erreferentziatzko adierazleak (PMI) 14,3 puntu egin du behera otsailean 35,7an kokatzeraino<sup>4</sup>, nahiz eta urte hasieran -pandemia baino lehen- 50 puntura iritsi zen, hazkunde-faktore bihurtu zelarik. Ez da hain maila baxurik erregistratu 2008tik, hots, finantza-krisi globala lehertu zenetik. Martxoan nabarmen suspertu zen adierazle hori, %52ra iristeraino.<sup>5</sup> Apirilean PMIak 1,2 puntu egin zuen behera, %50,8an kokatu zelarik. Bestalde, manufakturakoa ez den industria %53,2ra iritsi zen, aurreko hilabetean baino 0,9 gehiago.<sup>6</sup>

PMI	2020ko martxoa	2020ko apirila	2020ko maiatza
<b>MANUFATURAKOAK (%)</b>	52	50,8	<b>50,6</b>
<b>MANUFATURAKOAK EZ DENA (%)</b>	52,3	53,2	<b>53,6</b>
<b>INFLAZIOA (%)</b>	4,3	3,3	<b>3,3</b>

<sup>1</sup>Nazioarteko Diru Funtza (2020ko apirila): World Economic Outlook, April 2020: The Great Lockdown. <https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020>

<sup>2</sup>National Bureau of Statistics of China (2020ko apirila): Gross Domestic Product. <http://data.stats.gov.cn/english/easyquery.htm?cn=B01>

<sup>3</sup>Trading Economics (2020ko maiatza): China GDP Annual Growth Rate. <https://tradingeconomics.com/china/gdp-growth-annual>

<sup>4</sup>News China (2020ko martxoa): China's manufacturing PMI. <http://finance.sina.com.cn/roll/2020-02-29/doc-iimxyqvz6679333.shtml>

<sup>5</sup>Finance Sina (2020ko martxoa): China's PMI rebounded in March. <http://finance.sina.com.cn/wm/2020-03-31/doc-iimxsth2892396.shtml>

<sup>6</sup>National Bureau of Statistics. (2020ko maiatza): Press Release. 8 May, 2020. [http://www.stats.gov.cn/english/PressRelease/202005/t20200505\\_1742978.html](http://www.stats.gov.cn/english/PressRelease/202005/t20200505_1742978.html)



### 2.1.3. Inflazioa

Birusaren agerpenaren ostean, Txinako inflazioa % 3,3an dago une honetan, baina % 4,3an egon da martxoan, eta % 5,2an otsailen. <sup>7</sup> Aurreikuspenen arabera, prezioak jaitsi egingo dira kontsumoa bultzatzeko eta ekonomia sustatzeko, eta inflazioa % 3ra iritsiko da urtean zehar, % 2,6an kokatuko delarik 2021ean. <sup>8</sup>

### 2.1.4. Langabezia

Otsailen Txinako langabezia-tasa maila historikoetara iritsi zen, hain zuzen % 6,2ra <sup>9</sup>, martxoan % 5,9ra jaitsi zen, eta apirilean eta maiatzean % 6an kokatu da. <sup>10</sup>

## 2.2. INPAKTUA SEKTORE INDUSTRIALETAN



### AUTOMOZIOA

Ekoizpena: 2.100.000  
 Salmentak: % +4,4



### AEROESPAZIALA

- 5.626M USD



### ENERGIA

Ikatz: % +6  
 Petrolio gordina: % +0,9  
 Gas naturala: % +14,3  
 Argindarra: % +0,3

PMIaren zifrak herrialde baten osasun ekonomikoaren funtsezko adierazlea dira, eta eragina dute finantza-merkatuetan. Manufaktura-industriaren PMIak eta manufakturakoa ez den merkataritza-jardueren indizeak gora egin zuten martxoan, otsaileko beherakada latzaren ondoren; horrek argi islatzen ditu Txinak Covid-19aren epidemia prebenitzeko eta kontrolatzeko egindako lorpenak, garapen ekonomikoaren eta sozialaren alde eginiko lana eta enpresen ekoizpenaren berrabiarazte bizkorra. Apirilean, manufakturako PMIa 1,2 puntu jaitsi zen aurreko hilabetearekin alderatuta, eta manufakturakoa ez den jardueraren PMIa 0,9 igo zen.

Aurreko txostenetan ikusi den bezala, Covid-19ak sektore guzti-guztiei erasan die.

### 2.2.1. Automozioa

Automozioaren sektoreko ekoizpena ikaragarri jaitsi zen otsailen, aurreko hileko ia 1.500.000 unitateetatik hurrengoan 195.000 unitatetara igaroz; aldiz, martxoan, 1.422.000 unitatera iritsi zen berriro. Zifra hori hazi egin zen apirilean, eta 2.100.000 unitate inguru ekoitzi ziren. Hala, ekoizpena martxoan baino % 46,6 gehiago hazi zen, eta urte arteko hazkundera % 2,3koa izan da.

<sup>7</sup>National Bureau of Statistics of China (2020ko maiatza): Consumer Prices for April 2020. [http://www.stats.gov.cn/english/PressRelease/202005/t20200513\\_1744998.html](http://www.stats.gov.cn/english/PressRelease/202005/t20200513_1744998.html)

<sup>8</sup>Nazioarteko Diru Funtza (2020ko apirila): World Economic Outlook, April 2020: The Great Lockdown. <https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020>

<sup>9</sup> Finance Economy (2020ko martxo): 1,08 million new jobs were created in cities and towns. [http://news.china.com.cn/txt/2020-03/16/content\\_75819470.htm](http://news.china.com.cn/txt/2020-03/16/content_75819470.htm)

<sup>10</sup>China Industrial Economic Information Network (2020ko apirila): the unemployment rate dropped slightly. <http://www.cinic.org.cn/xw/szxw/790412.html?from=singlemessage>



2020	Martxoa		Apirila		2020 (Urtarrila - Apirila)	
	Uni.	Δ	Uni.		Uni.	Δ
<b>Ekoizpena</b>	1.422.000	% -44,5	2.102.000	% +2,3	5.596.000	% -33,4

Bestalde, auto salmenten urte arteko jaitsiera % 43,3koa izan zen martxoan.<sup>11</sup> % 4,4ko urte arteko hazkundera izan zuten apirilean, eta % 43,5koa martxoarekin alderatuta, hots, 2.000.000 unitate inguru saldu ziren.

2020	Martxoa		Apirila		2020 (Urtarrila - Apirila)	
	Uni.	Δ	Uni.		Uni.	Δ
<b>Salmentak</b>	1.430.000	% -43,3	2.070.000	% +4,4	5.761.000	% -33,1

Energia berria darabilten ibilgailuen ekoizpena eta salmentak % 56,9 eta % 53,3 murriztu ziren urte batetik bestera; aldiz, autoen esportazioek urte arteko % 0,8ko igoera izan zuten.<sup>12</sup>

### 2.2.2. Aeroespaziala

Pandemiak gogor kolpatu du abiazioaren industria, izan ere, Txinako abiazio zibilaren sektoreko diru-sarrerak 5.625 milioi dolar estatubatuar murriztu dira urtarriletik martxora.<sup>13</sup> Maiatzaren 15erako, abiazio zibilak erdietsia zuen epidemia aurreko mailaren % 60a.

### 2.2.3. Energia

Energiaren industriak ere jasan du Covid-19aren inpaktu negatiboa; petrolio gordinaren ekoizpenak urte arteko % 2,4ko beherakada izan zuen urtarriletik martxora eta argindarrarenak, berriz, % 6,8koa. Soilik ikatz gordinaren produkzioak eta gas naturalarenak egin zuten gora, urte arteko % 9,6 eta % 9,1eko hazkunderekin. Zehazki, gas naturalaren ekoizpena % 11,2 hazi zen martxoan.<sup>14</sup>

Apirilean, ikatz gordinaren ekoizpenak hazkunde azkarrari eutsi zion, urte arteko % 6ko igoera erregistratuz, eta petrolio gordinaren eta argindarraren ekoizpena ere suspertu egin zen, % 0,9 eta % 0,3 hurrenez hurren. Gas naturalaren ekoizpenak urte arteko % 14,3ko gorakada izan zuen. Bestalde, energia eolikoaren eta fotovoltaikoaren sorkuntzak urte arteko % 10,4ko eta % 19,9ko hazkundera izan zuten lehen lauhilekoan.<sup>15</sup>

<sup>11</sup> Trading economics (2020ko apirila): China Total Vehicle Sales. <https://tradingeconomics.com/china/total-vehicle-sales>

<sup>12</sup> Sohu (2020ko apirila): Car production and sales decreased in March by 44,5% and 43,3%. [https://www.sohu.com/a/387839626\\_115362](https://www.sohu.com/a/387839626_115362)

<sup>13</sup> Finance Sina (2020ko apirila): Loss of 39,82 billion yuan in aviation. <http://finance.sina.com.cn/stock/relnews/cn/2020-04-15/doc-iirczymi6473617.shtml>

<sup>14</sup> China Economic Net (2020ko apirila): Production of industrial raw coal. [http://www.ce.cn/cysc/ny/gdxw/202004/17/t20200417\\_34711874.shtml](http://www.ce.cn/cysc/ny/gdxw/202004/17/t20200417_34711874.shtml)

<sup>15</sup> National Bureau of Statistics of china (2020ko apirila): Energy Production in April. [http://www.stats.gov.cn/english/PressRelease/202005/t20200518\\_1745981.html](http://www.stats.gov.cn/english/PressRelease/202005/t20200518_1745981.html)



## 2.3. INPAKTUA KANPO-MERKATARITZAN ETA ATZERRIKO INBERTSIOAN

### 2.3.1. Kanpo-merkataritzaren zenbakiak



Txinako Muga-zergen Administrazio Nagusiaren arabera, inportazioak eta esportazioak % 4,9 murriztu dira lehen lauhilekoan; esportazioek urte arteko % 6,4ko beherakada izan dute urteko lehen lau hilabeteetan, eta inportazioen kasuan, beherakada % 3,2koa izan da.<sup>16</sup> Superabit komertziala % 30,4 gutxitu zen eta 58.400 milioi dolar estatubatuarretan kokatu da.<sup>17</sup> Txinak 34.800 milioi USD-ko eta 34.380 milioi USD-ko merkataritza-saldo defizitarioa izan du urtarrilean eta otsailean, baina martxoan 19.900 milioiko superabita lortu du, nahiz eta superabit hori aurreko urteko hilabete berekoa baino txikiagoa izan den (31.500 milioi dolar estatubatuar). Covid-19a hasi zenez geroztik, apirilean esportazioek gora egin zuten lehen aldiz lau hilabeteetan (% 8,2), eta inportazioak asko murriztu dira (% 10,2). Saldo komertzialak gora egin du hilabete honetan, 45.300 milioi dolar estatubatuarretara iristeraino.<sup>18</sup> Esportazio eta inportazioek % 4,9ko urte arteko beherakada izan zuten maiatzean; zehazki, esportazioak % 1,4 igo ziren, eta inportazioak % 12,7 gutxitu ziren. Hala, urte arteko superabita % 60,6koa izan zen.

Atzerriko Inbertsio Zuzenak (AIZ) urte arteko % 6,1eko jaitsiera izan du 2020ko lehen lauhilekoan. Hala ere, % 2,7 gehiago inbertitu da goi-mailako teknologiko zerbitzuetan; informazio zerbitzu, e-commerce eta zerbitzu profesional teknikoetako inbertsioak % 46,9, % 73,8 eta % 99,6 hazi dira hurrenez hurren. ASEAN eremuko atzerriko inbertsio zuzena % 13 emendatu zen, baina Europako atzerriko inbertsio zuzena % 29,1 murriztu zen.<sup>19</sup>

Gainera, Txinako Merkataritza Ministerioaren arabera, Txinako inbertitzaileek 235.000 milioi CNY-ko (33.000 milioi dolar estatubatuar) atzerriko inbertsio zuzenak (AIZ) egin zituzten 155 herrialdetan kokatutako atzerriko 3.000 enpresatan, gehienbat sektore hauetan: errentamenduak, handizkako zein txikizkako merkataritza-zerbitzuak eta manufaktura.<sup>20</sup>

<sup>16</sup> Trading economics (2020ko apirila): China Exports and Imports. <https://tradingeconomics.com/china/exports>

<sup>17</sup> Chinese Government Network (2020ko apirila): Ministry of Commerce talks about China's foreign trade in the first quarter of 2020. [http://www.gov.cn/xinwen/2020-04/16/content\\_5503242.htm](http://www.gov.cn/xinwen/2020-04/16/content_5503242.htm)

<sup>18</sup> Trading economics (2020ko apirila): China Balance of Trade. <https://tradingeconomics.com/china/balance-of-trade>

<sup>19</sup> Trading Economics (2020ko apirila): China Foreign Direct Investment. <https://tradingeconomics.com/china/balance-of-trade>

<sup>20</sup> General Administration of Customs (2020 maiatza). <http://www.customs.gov.cn/customs/xwfb34/302425/3114926/index.html>




## 2.3.2. Beste potentzia batzuekiko merkataritza <sup>21</sup>

### Merkataritza ASEAN eremuarekin



Azken lau hilabeteetan Txinaren eta ASEAN eremuaren arteko merkataritzaren guztizko balioa % 5,7 hazi da, eta kopuru hori erraldoi asiarraren guztizko kanpo-merkataritzaren % 14,9 da.

### Merkataritza EBrekin




EBrekiko merkataritzak alderantzizko joera izan du; azken 4 hilabeteetan % 6,5 murriztu da eta kopuru hori Txinako guztizko kanpo-merkataritzaren % 13,6 da.

<sup>21</sup>Txinako Muga-zergen Administrazio Nagusia (2020ko maiatza): Imports and Exports of China.  
<http://www.customs.gov.cn/customs/xwfb34/302425/3038756/index.html>





## Merkataritza AEBekin



Azken lau hilabeteetan, Txina eta AEBen arteko merkataritzak % 12,8ko beherakada izan du, eta kopuru hori Txinaren guztizko kanpo-merkataritzaren % 10,6 da.

## Merkataritza Japoniarekin



Txinaren eta Japoniaren arteko merkataritza ere murriztu egin da, % 2,1 zehazki, eta kopuru hori Txinako guztizko kanpo-merkataritzaren % 7,3 da.



## 2.4. INPAKTUA ZERBITZUETAN

Covid-19aren epidemiak inpaktu negatiboa izaten jarraitzen du zerbitzuen industrian. Lehen hiruhilekoan, zerbitzuen industriaren balio agregatuak urte arteko % 5,2ko jaitsiera izan zuen, 1.039 mila milioi dolar estatubatuarretan kokatu zelarik.<sup>22</sup> Otsailetik hona zertxobait suspertu bada ere, egungo politika murriztaileek sektorea presionatzen jarraitzen dute. Zehazki, koronabirusa dela medio, zerbitzuen sektoreko PMI indizeak kolpe latza jasan zuen otsailean eta 26,5 punturaino jaitsi zen; martxoan, aldiz, 43 punturaino igo zen, kontuan izanik zerbitzuen sektoreko 400dik gora enpresa pribatutara bidalitako galdetegiak eta kontuan izanik baita ere salmenta, enplegu, inbentario eta prezioen aldagaiak. Oraindik hazkunde-zifrarik erakusten ez duen arren (50 baino gehiago), sektorea beste herrialde batzuetan baino osasuntsuago dago. Apirilean, PMIa 52,1ekoa izan zen; eta kontsumo-ondasunen txikizkako salmentak martxoan urte arteko % 15,8ko jaitsiera izatetik apirilean % 7,5eko jaitsiera izatera igaro ziren. PMIa 52,3koa izan zen maiatzean, beraz, badirudi zerbitzuen sektorea suspertzen ari dela pixkanaka.

### 2.4.1. Turismoa



Mugak itxi zirenetik, atzerritarrek ezin dute Txinan sartu, ondorioz, nazioarteko turismoagatiko diru-sarrerak % 100 murriztu dira. Herrialde barruko turismoari dagokionez, kalkulatzeko da % 69ko galera gertatu dela 2020ko lehen hiruhilekoan, baina joera hori % 20,6ra murriztuko omen da urtean zehar.<sup>23</sup>

Maiatzaren 1etik 5era, Langilearen Nazioarteko Egunaren kariatara, 33,85 milioi bidaiari mugitu ziren trenez herrialdean barrena, hau da, 5,64 milioi bidaiari egunean. Zehazki, maiatzaren 1ean 7,37 milioi pertsonak bidaiatu zuten; hala, eguneko bidaiari-bolumenari dagokionez, errekorreko zifra erdietsi zen Urte Berri Txinatarraren jaialdiaz geroztik (2020ko urtarrila).<sup>24</sup>

5 egun horietan, Txinak 115 milioi turista nazional jaso zituen, eta 47.560 milioi CNY-ko diru-sarrerak sortu ziren (6.704 milioi USD), jaiegun horrek 2019ko maiatzean sortu zuenaren % 40a.<sup>25</sup>

### 2.4.2. Ostalaritza



Bestalde, ostalaritzak urte arteko % 35,3ko jaitsiera izan zuen hiruhileko horretan, zehazki, 29.829 milioi dolar estatubatuarrekoa.

### 2.4.3. Garraioa<sup>26</sup>



Garraio publikoa 111.045 milioi dolar estatubatuarrera jaitsi zen martxoan, % 14ko beherakada jasan zuelarik. Lehen hiruhilekoan, garraio publikoko bidaiarien trafikoa urte arteko % 49,3ko beherakada izan zuen hiri zentraletan. Auto publiko, tren, gurutzontzi, taxi eta transbordadoreetako bidaiarien trafikoa % 50,1, % 46,6, % 51,8 eta % 51,6 murriztu zen, hurrenez hurren.

<sup>22</sup>National Bureau of Statistics (2020ko apirila): The production of serviced industry improved significantly in March. [http://www.stats.gov.cn/tjsj/sjjd/202004/t20200419\\_1739634.html](http://www.stats.gov.cn/tjsj/sjjd/202004/t20200419_1739634.html)

<sup>23</sup> Statista (2020ko martxo): Forecasted loss rate of domestic tourists and travel revenue in China affected by coronavirus COVID-19 pandemic in 1st quarter and the whole year 2020. <https://www.statista.com/statistics/1109554/china-coronavirus-covid-19-pandemic-impact-on-domestic-tourism/>

<sup>24</sup> National Railway Administration (2020ko apirila): <http://www.nra.gov.cn/xwdt/xwlb/202005/t20200506107611.shtml>

<sup>25</sup> China Tourism Academy (2020ko apirila): <http://www.ctaweb.org/>

<sup>26</sup> Ministry of Transport of china (2020ko apirila). <http://www.mot.gov.cn/tongjishuju/>



## 2.4.4. Kultura <sup>27</sup>



Kulturaren sektoreko enpresen eta kulturarekin erlazionatutako industrien diru-sarrerek % 13,9ko urte arteko beherakada erregistratu zuten lehen hiruhilekoan. Zehazki, pandemiak entretenimenduko zerbitzuen eta kultur arloko entretenimenduaren sektorean izan du eragin handiena, urte arteko beherakada % 59,1ekoa izan delarik.

Kultur arloko komunikazio-kanalak % 31,6 murriztu ziren.

## 2.5. INPAKTUA FINANTZA SEKTOREAN (MERKATUAK, BANKUEN SEKTOREA)



INTERES-TASAK

**% 3,85**



BALORE-MERKATUA

**% -4,5**



BANKUEN SEKTOREA

**% 1,45**

Birusak inpaktu handia izan du hasieratik finantzen sektorean. Otsailetik hona, finantza merkatuko baldintzak hobetu egin dira eta Txinako Banku Popularrak % 3,85era jaitsi ditu bere interes-tasak, dirua merkatuzeko eta kredituak errazago emateko eta, bide horretatik, kontsumoa sustatzeko eta ekonomia bultzatzeko. Sektore pribatuari 726.478.000 milioi dolar estatubatuarreko maileguak eman zaizkio <sup>28</sup>. Banku arteko maileguen interes-tasak % 1,45ean kokatu ziren apirilean, eta martxoan, aldiz % 2,2an zeuden. Deposituek ematen duten interesa % 0,35ean mantendu zen.

Merkatuek oraindik nahiago dituzte ekintza gorakorrak, eta Txinako burtsak erakargarrietako bat izaten jarraitzen du; CSI 300 indizeak % 4,5eko jaitziera izan du 2020an, eta berau da kalte gutxien jasan duen merkatua, bi faktore hauengatik: martxoko ekoizpen industrial itxaropentsua eta erosleei emandako pizgarriek (kontsumoa ez gelditzeko eman direnek) sustatu dituzten auto-salmentak. Irabaziei dagokienez, 12 hilabetera kalkulaturako PER balioa (irabazia zenbat aldiz dagoen jasota akzioaren prezioan) ez da iristen 12 alditara CSI 300 indizean; aldiz, Stox 600 indizean 17 alditara iristen da, eta S&P 500 indizean, berriz, 22 alditara; horrek esan nahi du ratio hori Europako erreferentzia baino % 30 inguru txikiagoa dela, eta Wall Street-ekoa baino % 45 txikiagoa.

<sup>27</sup> National Bureau of Statistics (2020ko apirila): The Business Income of Cultural and Related Industries Above Designated Size Decreased by 13,9% in the First quarter of 2020. [http://www.stats.gov.cn/english/PressRelease/202005/t20200505\\_1742977.html](http://www.stats.gov.cn/english/PressRelease/202005/t20200505_1742977.html)

<sup>28</sup> Trading economics (2020ko apirila): Interest rate. <https://tradingeconomics.com/china/interest-rate>



## 3. EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

Estatu Kontseiluak iragan maiatzaren 6ko bileran laburbildu zituen Covid-19a hasi zenetik 8 eremu zehaztutan hartu diren 90 neurriak, zeintzuen helburu nagusia izan baita ekoizpena berraktibatzea eta enpresei aktiboki laguntzea (batik bat ETEei). Hauek dira puntu garrantzitsuenak <sup>29</sup>:

- BEZa murriztu da ETE eta autonomoentzat
- Galerak berreskuratzeko epea 5 urtetik 8ra luzatu da sektore kolpatuenentzat (garraioa, turismoa, e.a.)
- Gizarte Segurantzako tarifen salbuespenak ezarri dira
- Errepideetako bide-sariak kendu dira
- Argindar eta gas fakturak murriztu dira
- Murrizketak egin dira RRRn
- Berariaz sustatu dira birfinantzaketa, deskontuak, mikro-kredituak, kreditu-ildoak, interes baxuko maileguak, kapitalaren itzulketa atzeratuak, e.a.
- Babesa eman zaio lehen sektoreko ekoizpenari

Era berean, maiatzaren 21ean eta 22an eginiko Gobernuaren urteroko bileran erabaki zen ez zela urteko helburu ekonomikorik ezarriko, Covid-19ak eragindako ondorio ekonomikoetan zentratzeko eta enplegu sorkuntza bermatzeko.

### 3.1. DIRU-SARRERAK ETA GASTU FISKALAK



**USD 200MM**

PARA EMPRESAS,  
ESTADOS Y  
MUNICIPALIDADES



**USD 150MM**

PARA HOSPITALES Y  
TRANSPORTE  
PÚBLICO



**Vales  
electrónicos**

AYUDAS DIRECTAS A  
LAS FAMILIAS

Lehen lauhilekoan, **aurrekontu publiko orokorraren diru-sarrerak** % 14,5eko urte arteko jaitsiera izan zuten. Diru-sarrera zentralen eta lokalen urte arteko beherakada % 17,7 eta % 11,5ekoa izan zen, hurrenez hurren. Apirilean, zehazki, aurrekontu publiko orokor nazionalaren diru-sarrerak % 15 gutxitu ziren.

Lehen lauhilekoan, zerga garrantzitsuenetatik eratorritako diru-sarrerak nabarmen gutxitu ziren kasu gehienetan: BEZak urte arteko % 24,4ko jaitsiera izan zuen, kontsumoaren zerga % 12,8 gutxitu zen, inportatutako ondasunen balio erantsiaren gaineko zerga % 21,6 murriztu zen, sozietateen gaineko zerga % 13,7 jaitsi zen eta, aldiz, PFEZa % 1,6 igo zen.

Lehen lauhilekoan, **aurrekontu publiko orokor nazionalaren gastuek** % 2,7ko urte arteko beherakada erregistratu zuten. Gastu zentralak % 0,1eko urte arteko igoera izan zuten, eta aurrekontu publiko orokor lokalaren gastuak % 3,2 gutxitu ziren. Apirilean, zehazki, aurrekontu publiko orokorraren gastuek % 7,5eko urte arteko igoera jasan zuten; gastu zentrala % 7,1 murriztu zen eta gastu lokalak % 11,1eko urte arteko hazkundera izan zuten.

---

<sup>29</sup> State council (2020ko apirila): <http://english.www.gov.cn>



Gizarte Segurantzaren / enplegu eta osasun arloetako gastuak % 3,5 eta % 7,2 hazi dira hurrenez hurren.

Halere, badirudi gobernuak ez duela finantza-laguntzako pakete handirik onartu nahi. Laguntzak eman ditu enpresentzat, maileguak sustatu ditu epe laburreko likidezia injekzioak eginaz eta 200 mila milioi dolar estatubatuarreko kreditu bereziak eman ditu negozioak bultzatzeko, baina ez du laguntza zuzenik onartu gizartearentzat. Aldiz, kontsumorako bale elektronikokoak ematen ari da, Justin Lin Yifu kontseilariaren arabera, eskudirua ematea baino eraginkorragoa delako.<sup>30</sup>

## 3.2. NEURRI FISKALAK

Arlo fiskalean hainbat neurri hartu dira pandemiak ekonomian izan duen inpaktua konpentsatzeko, adibidez, interes-tasak murriztu dira. Halere, espero da inpaktua konpentsatzeko azpiegituretan egiten ari diren inbertsioak tokiko zorpetzeari gehituko zaizkiola; horrek presio handia eragingo du bankuen sektorean eta, ondorioz, gerta liteke bonuak ez ordaintzea eta kaudimengabezia korporatiboak ugaritzea.

Martxoaren 1etik maiatzaren bukaerara arte, Hubei probintziako zergadun txikiek ez dute BEZa ordaindu beharrik, eta beste eskualde batzuetako zerga-bilketa % 3 eta % 1 bitartean murriztu da. Maiatzaren 7an, Txinako Estatuko Zerga Administrazioak (STA) eta Finantzen Ministerioak (MOF) iragarri zuten neurri hori 2020ko abenduaren 31ra arte luzatuko zela, eta eskala txikiko zergadunei aplikatuko zitzaizela herrialde osoan (aldaketa txiki batzuk egon dira Hubei probintzian eta handik kanpo bizi diren zergadunentzat).

Kalkulatu da neurri fiskalak gutxi gorabehera 300.000 milioi ingurura iritsi direla apirilko lehen asteetan. Neurri horiek helburutzat dute inbertsio publikoa sustatzea, osasun sektoreko gastua handitzea eta karga fiskalak kentzea, bai inbertsioa eta kontsumoa sustatzeko, eta baita ere enpresariak Gizarte Segurantzaren egin beharreko ordainketak arintzeko.

Txinako Estatuko Zerga Administrazioak zirkular bat bidali zuen adieraziz zergen aitortpeneko epea luzatu egingo zela herrialde osoan 2020ko apirilaren 20tik apirilaren 24ra. Epe hori are luzeagoa izango da Hubei-n, pandemiak gogorren kolpatutako probintzian, eta epe berria betetzeko arazoak dituzten zordunek kasuan kasuko luzapenak eskatu ahal izango dituzte. Covid-19aren agerpenaren ondoren apirila denez lehen hiruhilekoko zergak aurkezteko epea, onurak emango zaizkie hileroko edo hiruhileroko zerga-aitortpenak aurkezten dituzten zordunei.<sup>31</sup>

## 3.3. DIRULAGUNTZAK ETA MAILEGU PUBLIKOAK



ETEak



AZPIEGITURAK



HIRUGARREN SEKTOREA

Txinako Gai Zibiletako Ministerioko Yi Peizhuang-ek apirilaren 10eko prentsaurrekoan esandakoaren arabera, Txinak 265 milioi dolar estatubatuar banatu ditu dirulaguntzatan.<sup>32</sup> ETEek ordaindu behar duten interesa % 1,3koa baino txikiagoa da, eta nekazaritza eta landa-eremuak sustatzeko maileguen interes-tasa % 0,25 jaitsi da (% 2,75etik % 2,5era). Halaber, aldi bateko likidezia zailtasunak dituzten ETEek, etxeek, enpresa industrialek eta autonomoek interesen ordainketa

<sup>30</sup>New York Times (2020ko apirila): While the World Spends on Coronavirus Bailouts, China Holds Back. <https://www.nytimes.com/2020/04/09/business/economy/coronavirus-china-economy-stimulus.html>

<sup>31</sup>China Briefing (2020ko maiatza): China's Support Policies for Businesses Under Covid-19: A Comprehensive List. <https://www.china-briefing.com/news/china-covid-19-policy-tracker-benefiting-business-enterprises-comprehensive-updated-list/>

<sup>32</sup>Spanish Xinhuanet (2020ko apirila): China distribuye 267 millones de dólares en subsidios durante el brote de Covid-19. [http://spanish.xinhuanet.com/2020-04/10/c\\_138964652.htm](http://spanish.xinhuanet.com/2020-04/10/c_138964652.htm)



atzeratu ahal izango dute ekainaren 30era inolako penalizaziorik gabe. Maiatzaren 9ko zirkularren arabera, zerbitzuen sektoreko ETEek ez dute ordaindu behar lokalen errentamendurik 3 hilabetez, lokalak Estatuaren jabetzakoak badira.<sup>33</sup>

Apirilaren 15ean zirkular bat bidali zen zenbait enpresarentzako finantza arloko laguntzei eta dirulaguntzei buruz. ETEek subsidioak eskatu ahal izango dituzte, plantillaren % 15a langile kontratatu berriak badira; enpresak 100 langile baino gehiago baditu, langile berrien portzentajeak % 8koa izan beharko du, horixe baita subsidioak aplikatu ahal izateko sine qua non baldintza. Kopuru hori 200.000 CNYrainokoa (30.000 USD) izan liteke. Banakako mailegudunek 200.000 CNY-rainoko (28.800 USD) maileguak eskatu ditzakete. 2020ko abendua baino lehen emandako maileguak batez ere bideratuko zaizkie hirugarren sektoreko negozio jabeei eta garraio publikoko zerbitzua emateko maileguak Internetez eskatu dituzten gidariei.

Panorama horren erdian, Azpiegituretan Inbertitzeko Asiako Bankuak (AIIB) apirilaren hasieran jakinarazi zuen larrialdietarako lehen mailegua (352 M USD-ekoa) jaulkiko zuela Txinarentzat, osasun publikoko eta horniduretako azpiegitura proiektuei aurre egiteko, batik bat Pekin eta Chongqing hirietan.<sup>34</sup>

### 3.4. LAN-INDARRA

**GIZARTE SEGURANTZAKO  
PRIMAK**



**LANGABEZIA-ASEGURUAK**

**LANGILEAK**

Giza Baliabideen eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak adierazi bezala, lan-merkatuan izandako inpaktua konpentsatzeko, Txinak enplegua sustatzera eta lanari berrekitera bideratutako hainbat neurri hartu ditu. Gizarte Segurantzako primak murriztu edo atzeratu egin dira, egoeraren arabera. Hala, ETEek ez dute ordaindu behar Gizarte Segurantzarik, pentsiorik, langabeziarik eta laneko lesioengatiko aseguru sozialik. Enpresa handien kasuan, % 50 salbuetsita daude aipatu tarifa eta gastu horietatik.<sup>35</sup>

2020ko lehen hiruhilekoan, Giza Baliabideen eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak 10.000tik gora enpresa zentral eta lokali lagundu die ia 500.000 pertsona errekrutatzen, hornidura medikoen eta oinarrizko premiazko artikuluen ekoizpena bermatzeko. Gainera, eskalarik gabeko garraioa baimendu zaie 5 milioitik gora langileri. Halaber, hazi egin da langabezia-aseguruak jasotzen duten pertsonen kopurua, eta enplegu, Gizarte Segurantzaren, gaikuntza eta entrenamendu subsidio berriak eman dira; apirilaren 21era arte, langabeziagatiko aseguru programak 5.476 milioi dolar estatubatuar itzuli dizkie 3 milioi enpresa baino gehiagori, eta 81 milioi langilek baliatu dute aseguru hori.<sup>36</sup>

Enplegua sustatzea helburu duen zirkular bat bidali zen, non proposatzen baitzen negozio berri bat hasi nahi duten enpresariei mailegu eta subsidio gehiago ematea, eta maileguak onartzeko prozedurak sinpletzea. Gainera, gobernu zentralak maiatzaren 22an iragarri zuen 53.900 milioi CNY (7.600 milioi USD) erreserbatuko dituela enplegu arloko subsidioentzat, langileen egonkortasuna bermatzeko.

<sup>33</sup> China Briefing (2020ko maiatza): China's Support Policies for Businesses Under Covid-19: A Comprehensive List. <https://www.china-briefing.com/news/china-covid-19-policy-tracker-benefiting-business-enterprises-comprehensive-updated-list/>

<sup>34</sup>The Diplomat (2020ko apirila): China-led AIIB Approves First Emergency Loan for Covid-19 Relief. <https://thediplomat.com/2020/04/china-led-aiib-approves-first-emergency-loan-for-covid-19-relief/>

<sup>35</sup> Sohu (2020ko otsaila): Ministry of Commerce: Hubei enterprises are exempted from pensions, unemployment and industrial insurance. [https://www.sohu.com/a/376032870\\_120207620](https://www.sohu.com/a/376032870_120207620)

<sup>36</sup>Spanish Xinhuanet (2020ko apirila): china toma medidas para garantizar el empleo y reanudar el trabajo. [http://spanish.xinhuanet.com/2020-04/21/c\\_138995773.htm](http://spanish.xinhuanet.com/2020-04/21/c_138995773.htm)



## ➔ 4. MURRIZKETAK

NIVEL DE DISRUPCIÓN



**SERVICIOS  
LOGÍSTICOS Y  
TRANSPORTE  
INTERNO**



**MOVILIDAD DE  
LA POBLACIÓN**



**SITUACIÓN  
DE LAS  
FRONTERAS**

### 4.1. ZERBITZU LOGISTIKOAK ETA BARNE-GARRAIOA

Garraio industriako aktibo finkoen inbertsioak % 34,0ko urte arteko jaitsiera izan zuen urtarrilean eta otsailean.<sup>37</sup> Hori horrela da bidaiarien trafikoa 1.400 milioi pertsonakoa izan zelako, urte arteko % 50,9ko jaitsiera erregistratu delarik; bidaia horien % 52,4 autobidez egin dira, eta % 55,0 ibaian barrena.

Garraio Ministerioaren arabera, karga-bolumena, inbertsioa eta beste adierazle batzuk % 90 inguru suspertu dira.

#### Karga-bolumena

Kargaren bolumena urte arteko % 87ko portzentajeraino igo da (16,9 puntu) otsailetik. Bestalde, bidaiarien hegazkinetako kargaren guztizko bolumena % 28,4 hazi da. Burdinbideetako karga nazionalaren bolumena % 0,2 hazi zen apirilean aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta urte arteko igoera % 2,4koa izan zen lehen lauhilekoan. Gainera, bidaiarien kopurua 390 milioi pertsonakoa izan da herrialde osoan (% 106,9ko hazkundea otsailarekin alderatuta).

#### Kargaren errendimendua

Portuetako kargaren errendimendua urte arteko % 97ko portzentajeraino igo da (6,6 puntu) otsailetik.

#### Inbertsioa garraioko aktibo finkoetan

Garraioko aktibo finkoetan eginiko inbertsioa urte arteko % 93,3ko portzentajeraino igo da (53,3 puntu) otsailetik. Zehazki, hiruhileko honetan ikusi da Txinak 73 milioi dolar estatubatuar inbertitu dituela garraio-azpiegiturretan, iaz baino urte arteko % 4,5 gehiago, eta ekonomia bultzatu nahi izatearen ondorio zuzena da hori.<sup>38</sup>

<sup>37</sup>China Industrial Economic Information Network (2020ko martxoa). Investment in fixed assets of transport. <http://www.cinic.org.cn/xw/tjsj/768499.html>

<sup>38</sup> Reuters (2020ko apirila): Investment in transportation: China spends 73 billion. <https://www.reuters.com/article/us-china-investment-transportation/china-spends-73-billion-on-transport-infrastructure-in-march-quarter-ministry-idUSKCN1S404J>



## 4.2. BIZTANLERIAREN MUGIKORTASUN-MURRIZKETAK



NAZIOARTEKO LARRIALDIA	ITXIALDIA	GOMENDIOAK	BIDAIK
MOEk adierazi zuen Covid-19aren agerpena osasun publikoko nazioarteko larrialdia zela	Wuhan hirian 11 asteko itxialdia agindu zen	Txinak neurri berberak sustatzen jarraitzen du birusaren hedapena saihesteko	Mugak itxita daude atzeritarrentzat
<b>NOIZTIK - NOIZ ARTE</b>	<b>NOIZTIK - NOIZ ARTE</b>	<b>NOIZTIK - NOIZ ARTE</b>	<b>NOIZTIK - NOIZ ARTE</b>
Urtarrilak 31tik → gaur arte	Urtarrilak 23tik → apirilak 8ra arte	Urtarrilak 23tik → gaur arte	Martxoak 28tik → gaur arte

MOEk urtarrilaren 31n adierazi zuen Covid-19aren agerpena osasun publikoko nazioarteko larrialdia zela. Bestalde, Txinak historiako berrogeialdi handiena agindu zuen egun batzuk lehenago koronabirusagatik; orduantxe hasi zen biztanleriaren mugikortasuna murrizten herrialde osoan eta Wuhan hiria guztiz itxi zen.

Martxoaren 25ean, Hubei probintziak trafikoari ezarritako mugak kendu zituen, Wuhan hirian izan ezik. Apirilaren 8an, Wuhan hiriak bertan behera utzi zuen itxialdia eta trafikoa berrabiarazi zuen.

Maiatzaren 11ra arte, 107.792 milioi ikasle itzuli dira eskolara, ikasle guztien % 39 bakarrik. Kopuru horretatik % 29,07 unibertsitateko ikasleak dira. Eskolak berriro hasi dira 26 probintzia, eskualde autonomo eta udalerritan. 5 baino ez dira oraindik eskolak berrabiarazi ez dituzten probintziak: Pekin, Hebei, Shandong, Hubei eta Heilongjiang.

Gobernuak maiatzaren 21 eta 22an eginiko urteroko bileraren ondoren, Kanpo Gaietako Ministerioa eta Europako Merkataritza Ganbera negoziatzen ari dira mugak erlaxatzeko, horrela langile europarrak beren lanpostuetara itzul daitezen Txinan. Kasuak banan-banan aztertuko dira.







### 4.3. MUGETAKO EGOERA

Martxoaren 28ko 0:00tik aurrera, sarrera galarazi zitzaizen Txinako bisak eta bizileku baimenak dituzten atzerritarrei. Hala, 3.000 pertsona baino gutxiago sartu dira Txinan aireportuetatik (sarrera kontrolatzeko politika zorrotz hau inplementatu baino lehen 25.000 pertsona inguru lurreratzen ziren egunean Txinan).<sup>39</sup>

Abiazio Zibileko administrazioak jakinarazi zuen eguneko hegaldi kopurua handitu egin dela, mugak itxi zirenean bortizki murriztu ondoren. Abiazio Zibileko administrazioak jakinarazi zuen herrialde barruko hegaldien bolumena epidemia aurreko mailaren % 60ra itzuli dela.

Gaur egun, Txinako 19 aire-konpainia eta atzerriko beste 28 ari dira lanean, batez beste astean 134 hegaldirekin eta egunean 3.000 bidaiarirekin. Ekainaren 8tik aurrera, astero 150 hegaldi egiten ari dira eta egunean 4.700 pertsonak bidaiatzen dute Txinara.<sup>40</sup>



<sup>39</sup> Chinese Government Network (2020ko martxoa): Announcement on stopping entry of foreigners with valid foreign visa and residence permit. [http://www.gov.cn/xinwen/2020-03/27/content\\_5496131.htm](http://www.gov.cn/xinwen/2020-03/27/content_5496131.htm)

<sup>40</sup> Chinese Government Network (2020ko ekaina). [http://www.gov.cn/xinwen/2020-06/05/content\\_5517335.htm](http://www.gov.cn/xinwen/2020-06/05/content_5517335.htm)



**BasqueTrade  
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización  
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO  
**spri**  
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**BASQUE GOVERNMENT**